

**Friedrich Hölderlin (1770-1843): olerkiak
(Itzultzaile: Luis Arostegi)**

DA ICH EIN KNABE WAR...

Da ich ein Knabe war,
 Rettet' ein Gott mich oft
 Vom Geschrei und der Ruthe der Menschen,
 Da spielt' ich sicher und gut
 Mit den Blumen des Hains,
 Und die Lüftchen des Himmels
 Spielten mit mir.

Und wie du das Herz
 Der Pflanzen erfreust,
 Wenn sie entgegen dir
 Die zarten Arme streken,
 So hast du mein Herz erfreut
 Vater Helios! und, wie Endymion,
 War ich dein Liebling,
 Heilige Luna!

O all ihr treuen
 Freundlichen Götter!
 Daß ihr wüßtet,
 Wie euch meine Seele geliebt!
 Zwar damals rieff ich noch nicht
 Euch mit Nahmen, auch ihr
 Nanntet mich nie, wie die Menschen sich nennen
 Als kennten sie sich.

Doch kann't' ich euch besser,
 Als ich je die Menschen gekannt,
 Ich verstand die Stille des Aethers
 Der Menschen Worte verstand ich nie.

Mich erzog der Wohllaut
 Des säuselnden Hains
 Und lieben lern't' ich
 Unter den Blumen.

Im Arme der Götter wuchs ich groß.

Mutiko nintzala
 jainko batek salbatu ninduan sarri
 gizakien agiraka eta zigorretik,
 orduan segurua eta ederto olgetan neban
 zuhaiztitzuko lorakaz,
 eta zeruko haizetxuak
 nigaz olgetan eben.

Eta zuk landaren
 bihotza poztuten dozun lez,
 zugana euren beso samurra
 luzatzen dituenean,

olan poztu dozu nire bihotza,
 Heliós aita!, eta, Endimión¹ lez,
 zure maitea nintzan,
 Luna² dohatsua!

Oi zuok jainko
 zintzo onbera guztio!,
 bazenkie
 zelan maitatu zinduezan nire arimeak!

Ez zinduedazan orduan oindino
 zeuon izenez deitzen, zeuok be
 ez ninduzuen inoz izendatu, gizakiak alkar izendatzen daben eran
 alkar ezagutuko balebe lez.

Alan be gizakiak inoz ezagutu dodazan baino
 obeto ezagutu zinduedazan,
 ulertzen neban eter-en isila,
 gizakien berbak ez nebazan inoz ulertu.

Zuhaiztitzu murmurkariaren
 doinuak hezi ninduan
 eta lora artean
 ikasi neban maitatzen.

Jainkoen besoetan hazi nintzan handi.

¹ Greziako elezaharreen Selene itargi-jainkosaren gazte maitea.

² Erromatarren iretargi-jainkosa

RÜCKKEHR IN DIE HEIMATH.

Ihr milden Lüfte, Boten Italiens!
 Und du mit deinen Pappeln, geliebter Strom!
 Ihr woogenden Gebirg', o all ihr
 Sonnigen Gipfel, so seid ihr's wieder!

Du stiller Ort! in Träumen erschienst du fern
 Nach hoffnungslosem Tage dem Sehrenden,
 Und du, mein Haus, und ihr, Gespielen,
 Bäume des Hügels, ihr wohlbekanntnen!

Wie lang ist's, o wie lange! des Kindes Ruh'
 Ist hin, und hin ist Jugend und Lieb' und Lust;
 Doch du, mein Vaterland, du heilig-
 Duldendes, siehe, du bist geblieben!

Und darum, daß sie dulden mit dir, mit dir
 Sich freun, erziehst du, Theures! die Deinen auch,
 Und mahnst in Träumen, wenn sie ferne
 Schweifen, und irren, die Ungetreuen.

Und wenn im heißen Busen dem Jünglinge
 Die eigenmächt'gen Wünsche besänftiget
 Und stille vor dem Schicksaal sind, dann
 Giebt der Geläuterte dir sich lieber.

Lebt wohl dann, Jugendtage, du Rosenpfad
 Der Lieb', und all' ihr Pfade des Wanderers,
 Lebt wohl! und nimm und segne du mein
 Leben, o Himmel der Heimath, wieder!

Haize bigunok, Italia-ko mezulariak!
 Eta zu zeure zumarrakaz, ibai maite ori!
 Zuek mendi uhinkariok, oi gailur
 eguzkitsu guztiok, hemen zaree barriro!

Leku isil hori!, urrin agertzen ziniakozan ametsetan
 etsipen egun ondoren ikus-guratsuari,
 eta zu, nire etxe, eta zuek, joko lagunok,
 Muinoko zuhaitzok, hain ezagunok!

Bai aspaldi dala, oi bai aspaldi!, umearen bakea
 joana da, eta joana gaztaroa eta maitasuna eta atsegina;
 baina zu, nire aberrí, deunki
 egonarritsu, beitu, zu gelditu egin zara!

Eta zugaz batera egonarri izan dagien, zugaz
 poztu daitezán, hezi egiten dituzu, maite horrek!, zeureak be,
 eta zentzatu dagizuz amesetan, urrin
 Alderrai, eta oker dabiltzanean, zintzoezak.

Eta gazteari bular beroan
 bere oldezeko gurariak otzandu jakozanean
 eta baretu halabeharraren aurrean,
 gogotsuago emoten deutsu gardenduak bere burua.

Ondo bizi, ba, gaztaroko egunok, zu maitasunaren
 larrosa-zidorra, eta zuok ibiltariaren zidor guztiok,
 ondo izan!, eta hartu eta bedeinkatu nire
 bizia, oi aberríko zeru horrek, barriro!

EMPEDOKLES.

Das Leben suchst du, suchst und es quillt und glänzt
 Ein göttlich Feuer tief aus der Erde dir,
 Und du in schauerndem Verlangen
 Wirst dich hinab, in des Aetna Flammen.

So schmelzt' im Weine Perlen der Übermuth
 Der Königin; und mochte sie doch! hättest du
 Nur deinen Reichtum nicht, o Dichter
 Hin in den gährenden Kelch geopfert!

Doch heilig bist du mir, wie der Erde Macht;
 Die dich hinwegnahm, kühner Getödteter!
 Und folgen möcht' ich in die Tiefe,
 Hielte die Liebe mich nicht, dem Helden.

DIE GÖTTER.

Du stiller Aether! immer bewahrst du schön
 Die Seele mir im Schmerz, und es adelt sich
 Zur Tapferkeit vor deinen Stralen,
 Helios! oft die empörte Brust mir.

Ihr guten Götter! arm ist, wer euch nicht kennt,
 Im rohen Busen ruhet der Zwist ihm nie,
 Und Nacht ist ihm die Welt und keine
 Freude gedeihet und kein Gesang ihm.

Nur ihr, mit eurer ewigen Jugend, nährt
 In Herzen die euch lieben, den Kindersinn,
 Und laßt in Sorgen und in Irren
 Nimmer den Genius sich vertrauern.

Bizia bilatzen dozu, bilatu eta jainkozko sua
sortzen jatzu sakon lurretik eta dirdaí egiten,
eta zuk irrits íkaragarriz
bota dagizu zeure burua Etna-ko sugarretara.

Holan urtzen ebazan perlak ardaotan erreginaren¹⁹
andiusteak; eta maite ebazan halan be!, ez bazendu
behintzat zeure aberastasuna, oi olerkari,
ontzi irakínean opaldu!

Halan be sakratu zaiataz, eroan zinduzan
lurraren ahala lez, eraildu ausarta!,
eta jarraitu gura neuskio sakonera,
maítasunak lotuko ez baníndu, gizurenari.

Eter ísil orí!, beti zaintzen deustazu ederto
arímea samínean, eta urendu egiten jat
ausardíraiko zure errainuez,
Helios!, sarri bular asaldatua.

Jainko onok!, landerra da ezautzen ez zaituena,
bular zakarrean ez jako sekula ístílua baretzen,
eta gaua jako mundua eta ezelango
pozík ez abestirik ez jako joritzen.

Zuek bakarrik, zeuen betiko gaztetasunaz, dozue
maite zaituenen bihotzean ume-sena janaritzen,
eta ez dozue arrenkuretán eta desbídéetan
inoz be jeínua atsekabetzen ízten.

¹⁸ Greziako olerkaria, natura-filosofoa eta endagilea (483-423. K.a.). Geroa-
go, bere burua Etnako sumendira bota ebala kontaketa sortu zan.

¹⁹ Kleopatra